



**Espedientea: 2HI-020/15-P03**  
**LARRABETZU**  
Hiri-antolamenduko Plan  
Orokorra

**Expediente: 2HI-020/15-P03**  
**LARRABETZU**  
Plan General de  
Ordenación Urbana

TOMÁS ORALLO QUIROGAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN IDAZKARIAK

TOMÁS ORALLO QUIROGA, SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO.

**HONAKO HAU ZIURTATZEN DUT:**  
Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordean, uztailaren 15ean, 4/2015 Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuten, aho batez, kideen gehiengo osoa eratzen zuten bertaratutakoek:

**CERTIFICO** que en la Sesión 4/2015 del Pleno de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, celebrada el día 15 de julio, se adoptó, entre otros, por unanimidad de los asistentes que conformaban la mayoría absoluta de sus miembros, los siguientes acuerdos:

**“I.- Lurralde-antolamenduaren arloan:**

**“I. En materia de Ordenación Territorial:**

I. Larrabetzuko udalerriko Hiri-antolamenduko Plan Orokorrean ezarritako lurralde-eredua balioestea, honako hauek ezarritakoa betetzeari dagokionez: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea; Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legea; eta, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanen gaineko Legea aldatzen duen uztailaren 16ko 5/1993 Legea. Honela balioetsi da:

I. Valorar el Modelo Territorial planteado por el Plan General de Ordenación Urbana del municipio de Larrabetzu de conformidad con lo establecido en la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, en la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco y en la Ley 5/1993, de 16 de julio, de Modificación de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de los Territorios Históricos, en los siguientes términos:

**1. INGURUNE FISIKOA.**

**1. MEDIO FÍSICO.**

1.a) Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetara egokitzea

1.a) Adecuación a las Directrices de Ordenación Territorial.

Lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioa eta erabilerak.

Categorización y usos del Suelo No Urbanizable.

- Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan ezarritako lurzoru urbanizaezinerako proposatutako antolamendu-kategorietan oinarrituta, “Babesteko Eremu Bereziak” “Babes Bereziako Eremuak” izango dira. Era berean, “landazabala” “nekazaritzako nahiz abeltzaintzako eta landazabaleko eremua” izango da. Gainontzeko kategoriak LAGen zonifikazioarekin bat datoz.

- En base a las categorías de Ordenación para el Suelo No Urbanizable establecidas en las Directrices de Ordenación Territorial, la categoría de Zonas Singulares de Protección pasarán a denominarse Zonas de Especial Protección. Así mismo, la zona denominada de Campiña pasará a denominarse Zona de Agroganadera y Campiña. El resto de categorías son acordes con la terminología de las DOT.

- Era berean, aldeko irizpena eman zaie espedientean proposatutako

- Valorar igualmente de forma favorable el régimen de usos y el de la



erabilera-erregimenari eta eraikuntza-erregimenari, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen erabilera-matrizean ezarritakoekin bat baitatuz.

- Aldeko irizpena ematen zaio Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 31. artikulua aipatzeari, ustiapenei lotutako lurzoru urbanizaezineko bizitegi-etxebizitzetarako lizentzia berriak emateari dagokionez. Baita 30. artikulua ere, baserriak berreraikitzeari dagokionez.

1.b) Bilbo Metropolitarrako Lurralde Plan Partziala.

Aldeko irizpena ematea espedientea Bilbao-Metropolitanekeo Lurralde Plan Partzialak udalerrri honetarako ezartzen dituen zehaztapenetara egokitzeari.

1.c) EAEko Erreken eta Ibaien Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.

- EAEko Erreken eta Ibaien Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala eta LPS horren aldaketa onartu zuen azaroaren 19ko 449/2013 Dekretua dira erreferentziatzat jo behar diren lurralde-antolamendurako dokumentuak, erreken eta ibaien ertzak antolatzeko; beraz, espedienteak bi arau horiek bete beharko ditu. Plan Orokorrak, azaleko uren babeserako kategoriarako lurzoru urbanizaezinen antolamenduari dagokionez, LPS horretara jotzen du; eta horri aldeko irizpena ematen zaio.

- Hiri-lurzoruan, Plan Orokorrak proposatutako J.I.-4 bizitegi-jarduera Aretxabalgane erreken eraginpean dago. Dokumentazio grafikoan oinarrituta, proposatutako eraikuntzaren antolamenduak ez ditu betetzen LPSak ezarritako urruntze-tarteak; beraz, hori zuzendu beharra dago. Urruntze-tarte horiek jaso eta grafiatu beharko dira bai eremuaren hirigintza-fitxan, bai dokumentazio grafikoan. Urruntze-tarte horiek ibilguaren mugatze-lerrotik edo gehieneko etorbidearen lerrotik 12 metrora egongo dira.

- SI 8.2 sektore industriala

edificación propuestos en el expediente en cuanto que son acordes con los establecidos en la Matriz de Usos de las Directrices de Ordenación Territorial.

- Se valora favorablemente la remisión al artículo 31 de la Ley 2/2006, de 30 de junio de Suelo y Urbanismo en lo referente al otorgamiento de nuevas licencias para la vivienda residencial en suelo no urbanizable vinculada a explotación; así como la remisión al artículo 30 en lo referente a reconstrucción de caseríos.

1.b) Plan Territorial Parcial de Bilbao Metropolitano

Valorar favorablemente la adecuación del expediente a las determinaciones que se establecen para este municipio en el Plan Territorial Parcial del Bilbao Metropolitano.

1.c) Plan Territorial Sectorial de Ordenación de Márgenes de los Ríos y Arroyos de la CAPV.

- El Plan Territorial Sectorial de Ordenación de Márgenes de Ríos y Arroyos de la CAPV y su Modificación aprobada mediante Decreto 449/2013, de 19 de noviembre, son los documentos de ordenación territorial de referencia para la ordenación de las márgenes de los ríos y arroyos. El Plan General, en la ordenación del suelo No Urbanizable para la categoría de Protección de Aguas Superficiales se remite a lo señalado en dicho PTS aspecto que se valora favorablemente.

- En suelo Urbano, la actuación residencial J.I.-4 propuesta por el presente Plan General se encuentra afectada por el arroyo Aretxabalgane. La ordenación de la edificación propuesta, - en base a la documentación gráfica-, no da cumplimiento a los retiros marcados por el PTS por lo que deberá ser subsanado. Dichos retiros deberán ser recogidos y grafiados tanto en la ficha urbanística del ámbito como en la documentación gráfica; retiros que se cifran en 12 metros desde la línea deslinde o línea de máxima avenida del cauce.

- El Sector Industrial SI 8.2, se



Irurierrekaren eraginpean dago, ekialdeko mugatik igarotzen baita. Lurzoru horrek onartutako Plan Partziala du, baina espedienteak sektorearen hirigintza-fitxa aurkeztu beharko du. Horretan, besteak beste, honako hau jaso beharko da: ibilgu eta eraikuntzaren arteko tartea eta garapen berriak hartzeko ahalmena duten ertzak. Horietarako, 12 metro ezartzen da urruntze-tarte eta eraikuntzaren artean, eta, urbanizazioak ondo kontserbatutako ur-bazterreko landaredia izanez gero, 4 metro izango dira.

- Uholde-arriskuko eremuak.

Txostenaren edukian jasotakoari jarraiki, Larrabetzuko erdiguneak, batez ere, 10, 100 eta 500 urteko uholde-arriskuko eremuak ditu eta eremu horiek guztiz hartzen dute J.I.-4 unitate berria, lehentasunezko fluxu-eremuaren barruan baitago. Beraz, URA-Uraren Euskal Agentziari horren balioespena egiteko eskatuko zaio.

## 2.- AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK

Proposatutako gainerako azpiegituren balioespena dagokien sail eskudunei igorriko zaie.

## 3. EREMU LIBREAK ETA EKIPAMENDUA

- Aldeko irizpena eman zaie Espazio Librean Sistema Orokorren zonakate orokorrari eta azalerari; izan ere, bermatu egiten du 2/2006 Legeak eskatutako berdeguneen eta hiri barruko parkeen zuzkidura publikoa. Espedientearen jasotako datuen arabera, honako ratio hau da: 15,59 m<sup>2</sup>/biztanle.

- Ez zaie eragozpenik jartzen, ekipamenduen inguruan egindako proposamenei.

## 4. BIZITEGIETARAKO ETA EKONOMIA-JARDUERETARAKO KOKALEKUAK

4.a) Bizitegirako eredua eta kuantifikazioa. Eraikigarritasuna Betetzea eta Babes Publikoaren Erregimen Batera Zuzendutako Etxebizitza.

encuentra afectado por el arroyo Irurierreka que discurre por su límite oriental. Si bien este suelo cuenta con Plan Parcial aprobado, el expediente deberá aportar una ficha urbanística del sector en la que se recoja, entre otras determinaciones, la separación de la edificación a dicho cauce, márgenes que estarían consideradas como márgenes con potencial de nuevos desarrollos para los que se establece una línea de retiro de 12 metros a la edificación y 4 metros a la urbanización si cuenta con vegetación de ribera bien conservada.

- Zonas inundables.

Tal como se ha recogido en el cuerpo del informe, el núcleo de Larrabetzu se encuentra, en gran medida, afectado por manchas de inundabilidad de 10, 100 y 500 años, quedando totalmente afectada por estas manchas la nueva Unidad J.I.-4.5 que queda dentro de la línea de flujo preferente. Se remite su valoración a la Agencia Vasca del Agua, URA.

## 2.- INFRAESTRUCTURAS Y SERVICIOS

Remitir la valoración de las infraestructuras viarias y ferroviarias propuestas a los Departamentos competentes.

## 3.- ESPACIOS LIBRES Y EQUIPAMIENTOS.

- Valorar favorablemente la zonificación global y superficie del Sistema General de Espacios Libres dado que la misma garantiza la dotación pública de zonas verdes y parques urbanos exigida en la Ley 2/2006, citada, en base a los datos señalados en el expediente, en un ratio de 15,59 m<sup>2</sup>/hb.

- No cabe poner objeción alguna a las propuestas efectuadas en materia de equipamientos.

## 4.- ASENTAMIENTOS RESIDENCIALES Y DE ACTIVIDADES ECONÓMICAS.

4.a) Modelo y cuantificación residencial. Cumplimiento de edificabilidades y Vivienda destinada a algún régimen de Protección Pública.



- Plan Orokorrean jasotzen den proposamenaren ondoriozko bizitegi-lorzuaren kuantifikazioa eta lurralde-eredua bat datoz Lurralde Antolamenduaren dokumentuen irizpideekin.

- Plan Orokorrak jasotako bizitegi-tarako proposamena lurralde-antolamenduaren dokumentuek eskatutako minimoetara oso doitu dago. Ildo horretatik, adierazi beharra dago horren kudeaketari oso jarraipen hurbila egin behar zaiola; izan ere, zehaztutako proposamenen bat egin ezean, edo proposatutako eremuren bat kudeatzean arazorik antzeman ez gero, Plana behar baino lehenago berrikusi beharko da.

- Espedientean, dentsitate baxuko eremuaren dokumentazio grafikoaren eta idatziaren arteko desadostasuna konpondu beharko da. Eremu horretan, gaur egun garatu gabeko B1, B2 eta B3 lurzatiak grafikoki mugatzen dira. Hirigintza-araudiak ez ditu inola ere aipatzen; beraz, espedientean, hirigintza-fitxa batean, eraikuntza eta hirigintzaren arloko parametroak jaso beharko dira, horiek garatze aldera.

- Aldeko irizpena ematen zaio espedienteari, garapen-eremuetarako proposatutako eraikigarritasun-balioak betetzeari dagokionez, eraikigarritasun-balio horiek balio maximoen eta minimoen artean baitaude, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 77. artikuluan araberak.

- Larrabetzuko udalerrak 3.000 biztanletik behera duenez, ez dago behartuta babes publikoaren erregimenen bati atxikitako etxebizitza-erreserba egitera, 2/2006 Legearen 80. artikuluan ezarritakoarekin bat. Aldeko irizpena ematen zaio BOE erregimenari atxikitako 34 etxebizitza kalifikatzeko egin den proposamenari.

- Espedientea Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailera bidaliko da, balora dezan.

- La cuantificación de suelo residencial y el modelo territorial que resulta de la propuesta contenida en el Plan General encaja con los valores que surgen de los documentos de Ordenación Territorial

- Ante la propuesta residencial planteada por el Plan General, muy ajustada a los mínimos exigidos por los documentos de Ordenación Territorial, cabe advertir sobre la necesidad de hacer un seguimiento cercano a la gestión del mismo, ya que, en el supuesto de no llevarse a cabo alguna de las propuestas definidas, o advertir dificultades en la gestión de alguno de los ámbitos propuestos, pudieran llevar a promover una revisión anticipada del presente Plan General que se informa.

- El expediente deberá subsanar la discrepancia existente entre la documentación gráfica y la escrita suscitada en la zona de baja densidad. En dicha zona se delimitan gráficamente las parcelas B1; B2 y B3, actualmente sin desarrollar. La normativa urbanística no hace referencia alguna a las mismas por lo que el expediente deberá recoger, en una ficha urbanística, los parámetros edificatorios de dichos suelos.

- Informar favorablemente el expediente en lo relativo al cumplimiento de las edificabilidades propuestas para los diferentes ámbitos residenciales analizados en el expediente, al situarse éstas entre los valores máximo y mínimo de acuerdo con el artículo 77 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

- De acuerdo con lo establecido en el artículo 80 de la Ley 2/2006, el municipio de Larrabetzu, dado que tiene menos de 3.000 habitantes, no está obligado a hacer reserva de viviendas adscritas a los diferentes regímenes de protección pública. No se pone objeción alguna a la propuesta efectuada por el Plan en la que se califican 34 viviendas adscritas al régimen de VPO.

- El expediente se da traslado al Departamento de Empleo y Políticas Sociales para su valoración.



4.b) Jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzoruen antolamendua eta kuantifikazioa.

- Plan Orokorrek indarreko plangintzan erabilera horretarako bideratzen diren lurzoruen antolamendua finkatzen du, eta gaur egun kalifikatuta dauden lurzoruen kuantifikazioa nahikoa dela jotzen du, plangintza berriaren indarraldirako aurreikusitako beharrak asetzeko. Egindako proposamenaren arabera, erabilera horretarako ez da lurzoru berririk kalifikatuko; aldeko irizpena ematen zaio horri, Bilbao Metropolitarrako Lurralde Plan Partzialean eta Jarduera ekonomikoetarako lurzoru sortzeko LPSean adierazitakoarekin bat baitador.

- Dena dela, espedientean, udalerriko industria-lurren egoera islatu beharko da, hiri-lurzoruan dauden eremuak zehaztuta. Gainera, bertako berariazko zehaztapenak eta 8.2. industria-lur urbanizagarriaren berariazko zehaztapen eta parametrorik garrantzitsuak ere adierazi beharko dira.

- Jarduera Ekonomikoetarako Lurzoru Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialak Larrabetzu A kategoriaren barruko udalerrizat jotzen du; beraz, kalifikatutako lurzoruetan, jarduera ekonomikoetarako poligonoetako merkataritza-ekipamenduen azalera, gehienez, 75.000 m<sup>2</sup> eta sabai-azalera, gehienez, 25.000 m<sup>2</sup> izatea onartuko da.

Jarduera Ekonomikoetarako Lurzoru Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko LPSak ezarritakoari jarraiki, espedienteak S.I.8.2 jarduera ekonomikoetarako lurzoruen sektorea mugatu beharko du, jarduera-poligono bakarra baita.

II.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen Lehen Xedapen Gehigarriko 3. puntu batzorde honen inguruan ezarritakoaren arabera, erabaki honetan jasotako baldintzak bete ondoren, behin betiko onespina eman ahal izango zaio espedienteari, batzorde honi beste txostenik eskatu beharrik gabe.

4.b) Ordenación y cuantificación del Suelo de Actividades Económicas y Equipamientos Comerciales.

- El Plan General consolida la ordenación de los suelos que se destinan a este uso en el planeamiento vigente, considerando que la cuantificación de los actuales suelos calificados es suficiente para satisfacer las necesidades previstas en el horizonte de vigencia del nuevo planeamiento. La propuesta efectuada de no calificar nuevo suelo para este uso se valora favorablemente, en cuanto que es acorde con lo señalado en el Plan Territorial Parcial del Bilbao Metropolitano así como en el PTS de Suelo para Actividades Económicas.

- No obstante lo anterior, el expediente deberá reflejar la situación de los suelos industriales del municipio, señalando los diferentes ámbitos existentes en suelo urbano con sus determinaciones particulares así como las determinaciones y parámetros específicos más importantes del Suelo Urbanizable Industrial 8.2.

- En relación con los Equipamientos Comerciales, el Plan Territorial Sectorial de Creación Pública de Suelo para Actividades Económicas y de Equipamientos Comerciales categoriza a Larrabetzu como municipio incluido dentro de la Categoría A, admitiéndose, en los suelos calificados, polígonos de actividad económica con una superficie máx. para equipamientos comerciales de 75.000 m<sup>2</sup> de explanada y 25.000 m<sup>2</sup> de techo comercial.

El expediente, en base a lo señalado en el PTS de Suelo de Actividades Económicas y de Equipamientos Comerciales deberá delimitar, como único polígono de actividad, el sector de Suelo de Actividad Económica S.I.8.2.

II.- A los efectos de lo dispuesto en el punto 3 de la Disposición Adicional Primera de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo relativa a esta Comisión, una vez introducidas las condiciones contenidas en el presente informe el expediente podrá ser aprobado definitivamente sin necesidad de ser



sometido nuevamente a informe de esta Comisión.

## II- Garraio Azpiegituren arloan:

Garraio Azpiegituren arloan, Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak 2015eko uztailaren 7an emandako txostena hartu beharko da kontuan.

## III- Foru-aldundiaren berezko arloak:

Foru-aldundiaren berezko arloetan, honako txosten hauek hartu behar dira kontuan:

- Bide Azpiegituren Zuzendaritzak 2015eko uztailaren 6an emandako txostena.
- Nekazaritza Saileko Aholkularitza eta Arauen Garapenerako Kabineteak 2015eko ekainaren 9an eta 2014ko irailaren 4an emandako txostenak.
- Udal Harremanetarako eta Hirigintzarako Zuzendaritza Nagusiko Lurralde Antolamendurako Atalak 2015eko urtarrilaren 13an emandako txostena.

## IV.- Uraren arloan:

URA-Uraren Euskal Agentziak, 2015eko uztailaren 7an, aldeko txostena eman zuen, honako erabaki lotesle hauek betetzeko baldintzapean:

1. J.I.4.5 jarduera integratuan dagoen arriskua gutxitzeko neurriak exekutatu arte, bertako eraikuntzek eta erabilerek Plan Hidrologikoaren Planaren 53.3 artikuluan ezarritako baldintzak beteko dituzte. Gainera, lehentasunezko fluxu-eremuaren barruko hiri-eremuetako lurpeko garaje eta soto berriak baztertu beharra dago.
2. J.I.4.1 jarduera integratuan,

## II- En materia de Infraestructuras del Transporte.

En materia de Infraestructuras del Transporte, es preciso tener en cuenta el informe emitido por la Dirección de Infraestructuras del Transporte de 7 de julio de 2015.

## III- En las materias propias de la Diputación Foral:

En las materias propias de la Diputación Foral es preciso tener en cuenta los siguientes informes:

- Informe de 6 de julio de 2015 de la Dirección de Infraestructuras Viarias.
- Informe de 9 de junio de 2015 del Gabinete de la Asesoría y Desarrollo Normativo del Departamento de Agricultura y el informe emitido el 4 de septiembre de 2014.
- Informe de 13 de enero de 2015 de la Sección de Ordenación Territorial de la Dirección de Relaciones Municipales y Urbanismo.

## IV- En materia de Aguas:

La Agencia Vasca del Agua-URA, en su informe emitido el 7 de julio de 2015, informa favorablemente de manera condicionada a que se dé cumplimiento a las siguientes determinaciones de carácter vinculante:

1. En la actuación integrada J.I.4.5, mientras no se ejecuten medidas que aminoren el riesgo existente, las edificaciones y usos cumplirán los requisitos indicados el artículo 53.3 del Plan Hidrológico, se deben excluir nuevos garajes subterráneos y sótanos en las áreas urbanas dentro de la zona de flujo preferente.
2. En la actuación integrada J.I. 4.1,



eraikuntzek eta erabilerek Plan Hidrologikoaren Planaren 53.4 artikuluan ezarritako baldintzak beteko dituzte.

3. Behin-behineko onepenarekin batera, hornidura eta saneamenduaren erakunde kudeatzailearen adostasuntxostena aurkeztu beharko da, Bizkaia-Bilboko uren partzuergoarena, alegia. Txosten horren bidez, dauden sareak karga berriak jasateko modukoak izango direla eta eskari berriak asetzeko baliabide nahiko dagoela egiaztatuko da.
4. Jabari Publiko Hidraulikoari edo horren zorgune eta zainzaguneei eragiten dieten jarduerak eta uholde-arriskua duten jarduerak exekutatu aurretik, Arroen Organismoaren alde aurreko baimena beharko da; hori URA-Uraren Euskal Agentziaren Mendebaldeko Arroen Bulegoetan izapidetu beharko da.

#### **V- Nekazaritza eta Abeltzaintzaren arloan:**

Nekazaritza eta Abeltzaintzaren arloan, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak 2015eko uztailaren 10ean emandako txostena hartu behar da kontuan.

**VI.** Espediente hau behin betiko onartzeko, eskumena duen organoari honako hauek egindako txostenak bidaltzea: Etxebizitza Sailburuordetza (I. eranskina); Garraio Azpiegituren Zuzendaritza (II. eranskina); Bizkaiko Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Zuzendaritza (III. eranskina); Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Aholkularitza eta Arauen Garapenerako Kabinetea (IV. eranskina); Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Harremanetarako eta Hirigintzarako Zuzendaritza Nagusiko Lurralde Antolamendurako Atala (V. eranskina); URA-Uraren Euskal Agentzia (VI. eranskina); Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza (VII. eranskina); eta, Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusia (VIII. eranskina). Ziurtagiri honekin batera doaz txostenak.”

las edificaciones y usos cumplirán los requisitos indicados en el artículo 53.4 del Plan Hidrológico

3. Junto con la aprobación provisional se deberán presentar un informe de conformidad del ente gestor del abastecimiento y el saneamiento del municipio, en este caso el Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia, que certifica que las redes actuales serán capaces de soportar las nuevas cargas y que existe recurso suficiente para satisfacer las nuevas demandas.
4. De modo previo a la ejecución de las actuaciones que afecten al dominio público hidráulico o a sus zonas de servidumbre o policía, o resulten ser inundables, se deberá obtener la previa autorización del Organismo de Cuenca, que se tramitará en la Oficina de las Cuencas Cantábricas Occidentales de esta Agencia Vasca del Agua-URA.

#### **V- En materia de Agricultura y Ganadería:**

En materia de Agricultura y Ganadería, es preciso tener en cuenta el informe emitido por la Dirección de Agricultura y Ganadería de 10 de julio de 2015.

**VI.** Remitir al órgano competente para la aprobación definitiva del expediente los informes emitidos por la Viceconsejería de Vivienda (Anexo I); por la Dirección de Infraestructuras del Transporte (Anexo II); por la Dirección de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Bizkaia (Anexo III); por el Gabinete de Asesoría y Desarrollo Normativo del Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia (Anexo IV); por la Sección de Ordenación Territorial de la Dirección General de Relaciones Municipales y Urbanismo de la Diputación Foral de Bizkaia (Anexo V); por URA. Agencia Vasca del Agua (Anexo VI); por la por la Dirección de Agricultura y Ganadería (Anexo VII); y por la Dirección General de Aviación Civil (Anexo VIII); que se acompañan a la presente certificación.”



Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, bilkuraren akta onetsi baino lehen, Vitoria-Gasteizen, 2015eko uztailaren 15an.

Y para que así conste, expido y firmo, con anterioridad a la aprobación del acta correspondiente a esta Sesión, en Vitoria-Gasteiz, a 15 de julio de 2015.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN  
IDAZKARIA  
SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO



Izpta./Fdo.: Tomás Orallo Quiroga